

TERESA LISIEUXKOA TA TERESA NEUMANN

Teresa Lisieuxkoa, *Eleizaren Irakasle* izendatzeko, 939 orriko liburu mardul bat argitaratu zan Erroman. Rogeri Rimbaud argitaletxeak publikatua, 1997. urtean. Bere izenburua “Concessionis tituli doctoris Ecclesiae universalis S. Teresiae a Iesu Infante et a Sacro Vultu”. Oi danez, “Positio” izenaz ezagutua.

Liburu orren 11garren kapituluan agertzen dira Teresitaren eragiña sentidu izan daberen ainbat pertsonen izen sonatuak. Santuak eta doatsuak, teologoak eta filosofoak, idazleak eta artistak, politikariak eta eleizgizonak. Orra or, adibidez, izen batzuk: Max Kolbe eta Edit Stein santuak, Erich Przywara eta Hans Urs von Balthasar teologoak, Henry Bergson eta Jacques Maritain filosofoak, Paul Claudel eta Georges Bernanos idazlariak, Alfred Manessier eta Alain Cavalier artistak, Charles Maurras eta Giorgio La Pira politikariak, Désiré Mercier eta Emmanuel Suhard kardinalak.

Baiña zerrenda luze orretan, nik neuk, Teresa Neumann be sartuko neuke. Emakume onen bizitzan Teresitaren eragiña itzela izan dalako. Ta gainera, Teresa Neumann emakume oso famatua dogu bai bere bizitza arrigarriagaitik eta bai bere santutasunagaitik. Laster altaretara jaso izango da Erroman.

Teresitari esker osatuta

Teresa Neumann Alemanian jaioten da, 1898. urtean eta bertan il be 1962.ean irurogeitamalau urtekin. Babariako Konnersreuth errian, ain zuzen be. Ogei urtekin bizkarrazurra apurtzen dau, auzoko baserri bateko sutea amatetan laguntzen ari dala.

Lesio orretatik, anka bietatik paralitika geratuko da. Gerotxoago, beste zoritxarreko erorketa baten ondorioz, begi bietatik guztiz ikusmena galduko dau. Gazte gaztetatik mogitu ezinik ta itsu aurkitzen da Teresa Neumann. Bere aitak lecnengo gerra mundialetik ekarritako Teresa Lisieuxkoren estampa bat damotso. Ta olantxe asten da T. Neumann Teresitari erre-guka osasuna lortzeko. Baita bere "Arima baten historia" be goitik bera irakurriko dau lilluraturik.

Teresitaren beatifikazio egunean, 1923.eko apirilaren 29an, bat-batean ikusmena berreskuratzen dau. Ta andik bi urtera, Teresita altaretara jasotako egunean, 1925.eko maiatzaren 17an, beingoan ibiltea lortuko dau. Eriotzaraino agertuko dau-tso Teresitari bere esker ona

36 urtetan jan barik

Guztiz sendatu ta urtebetera, pazko aldian, Teresa Neumannek bere buru, biotz-alderdi, esku ta oiñetan, Jesusen Pasiñoko zauri ezaugarriak jasango ditu. "Estigmatizazio" deri-txon fenomeno a sufrituz.

Emendik aurrera, il arteraiño, Jesusen bizitzako azken egu-nak bere gorputzean barrituko ditu. Bariku guztietan, eguerdi inguruan asten jakon odola dariola bere zauri eta begietatik. Naizta aleman bakarrik jakin, grekoz, arameoz eta latiñez jar-dungo dau berbetan. Izkuntza orreek ekienak ao-zabalik txun-dituta utzirik!

Arratsaldeko iruretan, berealaxe lozorroan sartzen da ta domeka goizean alaitsu ta zauriak osatuta itzartuko da Kristoren biztuera barrizatuz bere gorputzean. Bariku domeka bitartean, bost bat kilo galtzen ditu. Baina, bereala, bere pisu normala (58 kilo inguru) artuko dau.

Aste barruko beste egunetan, ia bizimodu normala eroango dau. Baratza zaindu, milaka erromes artu, ainbat gaixo osatu ta personalki ainbeste karta erantzun.

Gauzarik arrigarriena, "estigmak" agertu ondoren, ez dau Eukaristia besterik artuko. Ez dau beste janaririk ez edaririk artuko. Goizeko seiretako jaunartzea izango dau bere janari bakarra. Ta ori 36 urtetan zehar.

Mundu guztia txundituta. Medikuak eta eleizgizonak arrituta. Batzutan, guzurrean arrapatzeko, sagaratu bako ostia eskeiniko dautsoe. Baina Teresa Neumannek bereala ukatuko dautsoe guzurrezko ostia.

Ratisbonako Eleizbarrutiak be batzorde bat izentatuko dau kasu arrigarri ori aztertzeko. Komisio orretan medikuek eta lau monja erizainek artuko dabe parte. Gau ta egun, zinpean, ainbat astetan, saiatuko dira zaintzen Teresa Neumann, momentu baten be, bakarrik itzi barik.

Azken batean, danak ikusten dabe, Eukaristiaz bakar-bakarrik bizi dala Teresa Neumann.

Teresa Lisieuxkoaren bizitza ta Teresa Neumannena naiko desberdiñak ditugu. Teresitaren bizitza isila ta ezkutua. Neumannena, ostera, oso arrigarria ta sonatua. Il da gero, Teresitaren izarra beingoan asiko da dizdiz argitzen. Ta olan diardu gaur be. Neumannena, barriz, amatetan doala dirudi. Garai ilunak ezagutu izan ditu. Baina goi-mailako emakumea dogu. Ta Teresitaren bizitzaz ta mezuaz maitemindua.

Andoni Olea